

## Stonewall, gay eta lesbiana mugimenduaren lehen harria

Homosexualak, lesbianak, eta heterosexuala ez den beste aukera batzuk hautatu dutenak mundua mundu denetik izan dira. Halaber, praktika horiek historian zehar gogor gaitzetsi dira. Jazarpen horri aurre egin dion mugimendua, ordeza, oso berria da: EEBBetan sortu zen gaur 25 urte.

1969ko ekainaren 28 hartan, New York-eko gay eta lesbiana ugari euren giroko tabernetan bildu ziren ohizkoa zuten. Eta ohizkoa zuenez, poliziak homosexualen kontrako sarekada bat egiteari ekin zion Christopher kaleko Stonewall tabernatik hasiz. Dena ohizkoa zen momentuan,

trabesti bat izan zen Poliziari erantzun zion lehenengo eta ondoren hasi ziren besteak. Izanakin izan, izugarritzko kalapita sortu zen duela hogeitabost urte New Yorkeko kaleetan, borroka, koktel molotov eta gainerakoe-kin. Huraxe izan zen gay eta lesbianek kolektibo moduan erantzun zuten lehendabiziko aldia.

Handik aurrera, Stonewalleko haizeak mundu osora zabaltzen hasi ziren gero eta gay eta lesbiana talde gehiago sortuz. Borroka hasi zutenetik iragandako hogeitabost urteek, fruitu ugari eman ditu gainera: herrialde askotan homosexualitatea delitu ez izatea lortu da, gizartea sentsibilizatu

*Hegoaldean trantsizio politikoa puri-purian zegoela, 1977an, antolatu ziren Euskal Herrian lehenengo aldiz gay eta lesbianak. EHGAM izan zen horren emaitza. Iparraldean, berriz, homosexualak ez daude antolatuta.*

## Trantsizio politikoarekin, trantsizio sexuala 1977. urtean sortu zen EHGAM gayen aldarrikapenak ekarriz

1969an Stonewall-en sortu zen mugimendua, mundu osoko gay eta lesbiana mugimenduen pizgarri izan zen. Herrialde ugari homosexualak hala zirela adieraziz kalera ateratzen hasi ziren, eta euren eskubideen aldeko borrokan antolatzen. Espainiako estatura, bost urte beranduago iritsi ziren EEBBtako oihartzunak. Honela, 1974an Front de Alliberament Gay de Catalunya (FAGC) sortzen da Katalunian.

Eredu hori hartu arren, Euskal Herriko homosexualak beste hiru urte behar izan zituzten beldurra galdu eta antolatzen hasteko. 1977an —trantsizio politikoa puri-purian zegoenean— Euskal Herriko Gay Askapenerako Mugimendua sortu zen (EHGAM), hasiera batean, gay eta lesbianak biltzen zituena. Gero, 1979an, mugimendu feministaren baitan bilduta zeuden lesbianek euren kabuz antolatzeko erabakia hartu zuten ESAM sortuz. Horrek, ordea, ez zuen asko iraun eta disolbatu ondoren mugimendu feministara itzuliko dira emakume horietako batzuk, eta EHGAMen lan egiten segitu beste batzuk.

Hasiera-hasieratik, diskriminazio sexual ororen kontrako lanean hasiko da EHGAM, oraindik homosexualitatea delitutzat hartzen zen garaian. Izan ere, 1979an kendu zen Espainian homosexualitatea Gizarte Arriskurako Legetik, eta 1980an legeztatzen gay eta lesbianen taldeak. «Garai hartan hartu genuen jartzea oso gogorra izan zen. Jendea oso estua zen sexualitateari zegokionean, Elizak izandako eragin izugarriatik



Francisen heriotza gogor salatu zuen EHGAMek.

neurri batean. Lotsagarria zen EHGAMekoa izatea, eta alderdi eta sektore iraultzaileen ere bizkarra ematen ziguten», oroitu du talde honen sorreran parte hartu zuen kideetako batek.

Lesbiana edo homosexual zirela agerian jarri zuen jendeak oztopo ugari jasan behar izan zituen, «betiko lagunak izandako ere, ez zuten kalean zurekin hitzegiten gelditu nahi izaten. Besteek pentsatuko zutenaren beldur ziren». Mobilizazioak egiten zituztenean izugarritzko espektazio sortzen omen zen.

Baina EHGAMen historian, zeresan handia izan zuen 1979ko ekainaren 10ean Erreterian gertatutakoak: Apolo diskotekan Polizia Nazional batek Francisco Vadillo 'Francis' trabestia hil zuen. Gogor salatu zuen heriotza hori EHGAMek, gaia kalera

ateraz. «Errepresioaren eraginez hildako beste lagun bat zela ulertarazi nahi genuen, alderdi askok ez baitzuten horrela ikusten». Aldarrikapen horrekin aurrera eginez, poliziaren kontrako epaiketan parte hartu zuen EHGAMek. «Hori zela eta mehatxuak, erasoak eta poliziaren erasoak jasan behar izan genuen. Poliziari eskatzen zioten zigorra, ordea, onarteziana zen, sei hilabeteko arrestatzea».

17 urte egin ditu, beraz, EHGAMek borrokan. Urte guzti hauetan, gizartearen jarrera «zertxobait behintzat» aldatzea lortu dute taldeko kideen iritziz. «Baina oraindik diskriminazioak ugariak dira eta horrexegatik, lehenengo egunean bezala segitzen dugu borrokan, hasierako helburuetan inolako aldaketarik egin gabe».



Stonewalleko gertakariak oroitzeko egindako manifestaldia.

ordea, inoiz lehenago gertatu gabekoa jazo zen: gay eta lesbianek erantzun egin zioten poliziaren oldarrari. Martin Duberman 'Stonewall' liburuaren egileak jasotzen duenez, lesbiana baten protestekin hasi zen guztia. Poliziak kolpe batekin erantzun zion emakumezkoaren kexuari, eta hori ikusita ingurukoak gauzak botatzen eta Poliziari eraso egiten hasi ziren.

Beste bertsio baten arabera,

eta normalizazioan sartzea eta Eskubide Zibilen lorpenean egindako aurrerakada ere nabarmena da.

Egun garrantzitsua da, beraz, gaurkoa, gay eta lesbiana mugimenduarentzat. Horren adierazbide besterik ez da, igandean New Yorken Stonewalleko gertakarien 25. urteurrena ospatzeko egindako manifestaldia: mundu osotik hurbilduta milioi bat lagun bildu zen bertan.

Donostiako udala



Gazteria Saila

## HESIRIK GABE

*Amodioa, desioa,  
kidetasunak egiten du  
baliatsu, ez sexualitateak.*

